

- Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia -

Finala zuzenean argia.com-en

Abenduaren 13an, finalaren jarraipen zorrotzena argia.com-en izango duzu: bertsoak, bertsoaldien komentarioak, protagonisten iritziak... Info7, bertsoa.com eta ARGIA indarrak batu dituzte zuzeneko emanaldi osoena zuri eskaintzeko.

Estitxu Eizagirre

10:30EAN hasi, eta txapela jantzi arte zuzenean bizi ahal izango duzu finala etxetik. Info7, bertsoa.com eta ARGIAren elkarlana-rekin, finalaren jarraipen osatua izango duzu: Interneteko telebista formatuan, bertsoak, bertsoaldien komentarioak, elkarrizketak... izango dituzu ikusgai.

Info7 irratiak txapelketa osoan egin duen moduan, bertsoaldiak komentatuko ditu, baina oraingoan ahotsaz gain, aurpegia ere jarriko dute. Hiru aditu hauen analisiak entzungo dituzu: Xabier Euzkitze eta Jokin Sorozabal arituko dira goizean, eta arratsaldeko saioa Sorozabalek eta Unai Agirrek aztertuko dute, Agin Rezola beti itzain dutela.


Bertsoa.com-ek txapelketa osoa zuzenean eman du, eta finaleko bertso eta publikoaren irudiak ere eskainiko ditu, BEC angelu guztietatik harrapatuta.

Eta berrikuntza, finaleko hainbat pertsonaia zuzenean elkarrizketatzea izango da (publikoa, kultur munduko protagonistak, bertsolariak...).

Final-ostean zortzi protagonistek eskainiko duten prentsaurrekoa ere zuzenean ikusiko duzu. On egin dagizula. ■

www.argia.com

helbidean izango duzu ikusgai finala zuzenean.



Usurbilgo OIARDO Kiroldegian

**2009ko abenduaren 19an, bi saio:
16:00etan eta 18:30ean**

**Pirritx, Porrotx
eta Mari Motots
“Irrien lagunak”**

Ian berriaren aurkezpen emanaldia

Sarrerak: aurretik 5 euro / egun berean 6 euro
(12 hilabete arteko haurrak doan)
Salgai: Orio (Arkaitz)
Lasarte-Oria (Artizar)
Usurbil (Bordatxo, Mahuka eta kiroldegia)
Antolatzailea: ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldea.